

Zu Tuberrak



Zu Tuberrak

HD
480p
360p
240p

3:43

Bits eta Gor gazte alai eta aktiboak dira. Gaur, txip aldaketan jolasten ariko dira: robotak bailiran, burmuinean txip berria sartzan, bakoitzak bere gogoko dohaia aukeratzeko. Gorrek indarra hautatuko du. Bitsek, aldiz, hitzak aukeratuko ditu eta, hitzei esker, trebetasun handia izango du rap kantari gisa. Ondorioz, sekulako arrakasta izango du sarean, YouTubean. Gorrek, inbidiak jota, hitzak gordetzen dituen txipa ezabatuko dio Bitsi. Orain ezingo du rapeatu, hitzik gabe galduta dago. Zer gertatu litzateke hizkuntza ezabatuko baligute?

#Zutuberrak haur eta gazteei zuzendutako antzezlanak da. Gogoko dituzten osagaiez baliatuta (Internet, YouTube, rapa, irudiak eta abar) euskararen gaineko hausnarketa egingo da. Zergatik ez dugu euskaraz egiten? Gure hizkuntzak ematen ez digun zer ematen digute erdarek, bada? Zer gertatuko litzateke hizkuntzarik izango ez bagenu?

Eszenatokian trebetasun handiko aktore bi jokatzen ariko dira. Erritmo bizia, zuzeneko irudiak, bideoak eta rap musikaz zipriztindutako antzezlanak da. YouTubeko gaur egungo egoera batetik, zientzia fikziozko jolasetara jauzi egingo dute, euskararen gaineko ohiko gertaeren esketxak tartekatuz.

#Zutuberrak antzezlanarekin haur, gazte, irakasle, guraso eta edozein euskaltzalek izango du hausnartzeko aukera; euskararen erabileraz, gaur egungo komunikatzeko tresnez eta hizkuntzaren balioaz gogoeta egingo da. Hori guztia komedia bizia ardatz dela.



Txipa aldatzea aukera da, jarrera da.



IRAUPENA: 55 minutu

IKUSLEGOA: 7- 14 urte bitartekoentzat

FITXA ARTISTIKOA

Testua eta zuzendaritza:
Galder Perez

Aktoreak:
Olatz Pagalday eta Jon Zubiaga (Osoron)

Aktorea Bideoan:
Urko Olazabal

Soinua diseinua eta grabaketa:
Asier Ercilla. Balea musika ideiak

Zutuberra kantuariaren basea:
Maisha

Argazkiak:
ilara

Jantziak:
Estudio 14

Bideoklipa:
Bideozbideo.com

Hizkuntz aholkularia:
Jon Sanchez Barrado

Diseinu aholkularia:
BLK komunikazioa

Diseinua eta ilustrazioak:
M. Biosca-Vdh comunicaci3n

Ekoizpena:
EIDABE

Kontratazioa:

EIDABE
Jardines 10 1esk 4. dptoa
48005 Bilbao
tel: 94 4794315

info@eidabe.com - www.eidabe.com



eidabe
ekimen kulturalak



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

